



EBAZPENA, 2021eko apirilaren 12ko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, EAeko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara ematen duen zuzendari beraren 2021eko otsailaren 12ko ebazpenaren akatsak zuzentzen dituena.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 12ko ebazpenaren bidez argitara eman zen EAeko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuazioa adierazten zuena.

Aritmetiko akatsak aurkitu dira parte-hartzaile baten 1.1.1. ataleko baremazioan (ikastetxean behin betiko destinoarekin karrerako funtzionario gisa etengabeko iraunaldia) eta, ondorioz, guztizko puntuazioan; horregatik, eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“Administrazio Publikoek, halaber, izango dute edozein unetan, ofizioz edo interesatuen eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak zuzentzeko aukera”*. Horiek horrela, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

## EBAZTEN DUT

**Lehena.-** 1.1.1. ataleko merezimenduen puntuazioan (lehiatzen den ikastetxean behin betiko destinoa duten karrerako funtzionario gisa etenik gabe egotea) eta 2020/2021 lekualdatze-lehiaketan onartutako eta onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrendako parte-hartzaile baten eta, ondorioz, guztizko puntuetan antzemandako aritmetiko akatsak zuzentzea. Irakasle hori Bigarren Hezkuntzako katedradunen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen eta irakasle teknikoek kidegoetako irakaslea da. Puntuazio zuzena ebazpen honen eranskinean ageri da.

**Bigarrena.-** Gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 12a

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



HEZKUNTZA SAILA  
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza  
Langile-homikuntza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Dirección de Gestión de Personal  
Provisión de Personal

ERANSKINA / ANEXO

Se corrigen los errores aritméticos en el cómputo del apartado 1.1.1 y en el Total sin Euskera de la siguiente participante, quedando de la siguiente forma:

Ondorengo parte-hartzaileen 1.1.1 atalaren konputoan eta guztizkoaren, euskararik gabe, puntuazioetan dauden aritmetiko akatsak zuzentzen dira. Horrela geratzen dira:

NAN/DNI:\*\*\*2430\*\* DEITURAK ETA IZENA/APEL.Y NOMBRE: EZCURRA YURREBASO ELIXABETE MODA./MODA.: B ESP/ESP: 007 HE/PL: PL2 LH/TH:48

1.1. ANTZINATASUNA IKASTETXEAN/ANTIGUEDAD EN EL CENTRO .....	00,0000
1.1.1 .. 00,0000	1.1.2 .. 1.1.3 ..

GUZTIRA EUSKERA GABE/TOTAL SIN EUSKERA .. 48,1830